

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

188 positibo berri  
8.975 positibo guztira\* UCln EAEn

1.813 hildako EAEn

### NAFARROAN

228 positibo berri  
13.952 positibo guztira

550 hildako  
14 UCln Nafarroan

\*HERNANIN 298 (+12), ASTIGARRAGAN 54 (+1)

## Lau kirol eta kultur ikastaro berezi aukeran, Hernaniko nerabeek

Arku tiroa, mendiko bizikleta, mindfulness eta tatuaje diseinua egin ahal izango dituzte 12-17 urte bitartekoek. Izenematea zabalik dago, internet bidez edo telefonoz.

### HERNANI UDALA

Nerabeei (12-17 urte) zuzenduta, hainbat kirol eta kultur ikastaro antolatu ditu Hernaniko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, ikasturtearekin batera. Helburua da «zaletasunak garatu edo berriak topatzea», eta ikastaro guztiak prestatu dituzte «modu seguruan garatu ahal izateko», azaldu dutenez.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arlokoak izango dira horietako bi. Batetik, arku tiro ikastaroa egingo dute, irailaren 21, 23, 25 eta 30ean, arratsaldeko 16:00etatik 17:30etara. Eta bestetik, mendiko bizikleta ikastaroa izango da, urriaren 5etik 9ra, 16:00etatik 18:00etara. Kaxkardi

Kirol Elkarteko kideek gidatuko dituzte ikastaroak.

Bietarako, izenematea zabalik dago, eta internet bidez egin behar da, [labur.eus/gylCI](http://labur.eus/gylCI) helbidean. Doakoak dira, baina 10 euroko fidantza eskatuko da aurreneko saioan, eta bueltatu egingo zaie gero, ikastaro osoan parte hartzen dutenei. Informazio gehiagorako, hainbat bide aukeran: Twitter eta Facebookeko [@gaztetuhernani](https://www.facebook.com/gaztetuhernani) kontuak, Instagrameko [@gazteria](https://www.instagram.com/gazteria), 943 33 70 04 telefonoa, edota [gazteria@hernani.eus](mailto:gazteria@hernani.eus) helbide elektronikoa.

### Mindfulness eta tatuaje ikastaroak ere, aukeran

Kultur ikastaroak izango dira beste biak, Biterin eskainiko di-

tuztenak. Mindfulness ikastaroa egingo dute larunbat goizean, 11:30etatik 13:00etara, Danel Iñurritegiuren eskutik. Baraka Psikologia Integraleko Institutuko kidea da Iñurritegi: «helburua da arreta osoaren praktika zein den ezagutzea, ulertzea eta barneratzea». Zortzi saio izango dira, urriaren 3tik azaroaren 28rako larunbatetan. 22 euroko prezioa izango du.

Eta asteazkenetan, tatuaje diseinu ikastaroa eskainiko du Iñaki Urruzola tatuatzaile eta diseinatzaileak, 18:00etan hasi eta 19:30ak arte. Bertan ezagutuko dituzte, tatuajearen jatorria eta estilo nagusiak, baina batez ere, tatuaje diseinuak sortuko dituzte, eta norberaren marrazteko era garatuko dute, tatuajearen mundura bideratuz. Hamar saio izango dira, urriaren 7tik abenduaren 16ra bitartean; eta 25 euro dira.

Bi ikastaroek izango dituzte plaza mugatuak, eta izena

ematen dutenen artean, zozketa egingo dute. Irailaren 30a izango da izena emateko azken eguna, [labur.eus/YMCOM](http://labur.eus/YMCOM) webgunean, edo 943 33 70 04 telefonoan (goizeko 10:00etatik 13:00etara). Zozketaren ondoren egin beharko dute matrikula, plaza dutenek; eta orduan ordaindu kuota.

### Eskalada ikastaroa berriro, gazteentzat

Bestalde, Udalak jakinarazi du berriro eskainiko dela eskalada ikastaroa, 18-30 urteko gazteentzat, uztailean bertan behera geratu ondoren. Kaxkardik gidatuko du, Santa Barbaran, eta bost saio izango dira: irailaren 22, 24 eta 29an, eta urriaren 1 eta 2an. Plaza mugatuak izango dira, eta izena eman behar da, interneten: [labur.eus/sz697](http://labur.eus/sz697).

Doakoa da, baina 10 euroko fidantza jarri beharko da, baina saio guztietan parte hartuz gero bueltatu egingo dute, ikastaroaren bukaeran. **K**

## Hitzaldia eta bertso afaria, gaur

### HERNANI KONTRAKANTXA

Bi ekintza antolatu ditu Kontrakantxa gaztetxeak, gaurko. Aurrena, hitzaldia eskainiko du Zigor Garro euskal preso politiko ohiak, 18:30etan. Eta 21:00etan bertso afaria izango da, Eñaut Martikorena eta Iker Ormazabal bertsolariekin. Afarirako izena eman behar da, gaztetxean edo Goiz Argi tabernan, 10 euroan.

## Asmoa, pala eskola martxan jartzeko

### GOIZUETA PALA

Pala eskola jarri nahi du martxan Goizuetako Umore Ona kirol elkarteak; eta horretarako, herriko neska eta mutilak animatu ditu, izena ematera. 5 urtetik gorakoak apuntatu daitezke, haur, gazte edo heldu. Horretarako, zuzendaritzako Igor, Lourdes, Leire edo Axierri esan behar zaio, edo emailez idatzi [umoreonapilotaelkarte@hotmail.com](mailto:umoreonapilotaelkarte@hotmail.com) helbidera, irailaren 27ra bitartean.

## Matrikula egiteko epea, orain

### HERNANI BITERI

Zabalik dago matrikula egiteko epea, Biteriko ikastaroetan. Zozketaren zerrenda ikusgai dago Biterin bertan, eta plaza dutenek, irailaren 24ra arte egin dezakete matrikula: Biterin, 09:00-14:00 eta 16:00-20:00 ordutegian; edo [hernani.eus/kultura](http://hernani.eus/kultura) webgunean. Auzoetako tailerretan ere, zabaldu dute izena emateko epea. 6 urtetik gorakoak apuntatu daitezke.

## Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

### HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa deitu dute gaur, 20:00etan Zinkoenean, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideak aldarrikatzeko.

## Lokal berria ezagutzeko zita gaur, Gaztelekuak

Kultur etxe zaharrean egongo da Astigarragako Gaztelekua, aurrerantzean; eta toki berria ezagutzeko, pista-jolas bat proposatuko dute gaur, arratsaldeko 17:00etan elkartuta bertan.

### ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Martxan jarriko da Astigarragako Gaztelekua, berriro ere, ikasturte honetan. Baina iraileko buelta hau, beste batzuetatik oso desberdina izango da, haienean.

Bi arrazoi izango dira tarteko, bereziki. Batetik, Koronabirusaren pandemiaren eragina. Horren ondorioz, kanpoko ekintzak antolatuko dituzte soilik, prebentzio neurrien artean kaleko ekintzak lehenestea eskatu dietelako.

Ikasturte hau desberdina izateko beste arrazoia, aldiz, pozgarriagoa da: azpiegitura berria

izango du Gaztelekuak; lokal berria, alegia. Izan ere, kultur etxe zaharrera mugituko dute Gaztelekua, bigarren solairura.

Lokal berria ez dago prest oraindik, ordea; eta urriaren 3an egingo dute irekiera ofiziala. Bitartean, kalea erabili beharko dute beraien ekintzetarako.

Gaur bertan izango da aurrenekoa; hain justu, lokal berriarekin lotutakoa: pista-jolasa antolatu dute, nerabeei kokapen berria ezagutzera eman eta informatzeko asmoz. Horretarako, gaur arratsaldeko 17:00etan egin dute kedada, Astigarragako nerabe guztiekin. **K**



Lokal berria izango du Gaztelekuak aurrerantzean, kultur etxe zaharrean.

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**

**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin  
\* Beilatokiak

\* Erresketak  
\* Lekualdatzeak  
\* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

**ITXASPE**

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 665 735 224  
20120 Hernani

**ANTZIOLA, 3**  
**943 55 17 91**  
**HERNANI**

**ANTZIOLA OKINDEGIA**



**GAUR** Ezegonkortasuna haunditu egingo da gaur, eta aukera gehiago izango da euria egin eta ekaitza lehertzeko. Lainoak nagusitu dira zeruan, baina hegoaldeko haizearekin jarraituko dugu, eta tenperatura nahiko altua izango da. **Min.18° / Max.28°**



**BIHAR** Giro nahasiarekin jarraituko dugu bihar. Lainoak eta ostarre zabalak tartekatuko dira zeruan, eta zaparrada trumotsuren bat ere bota dezake tarteka. Hegoaldeko haizea harro ibiliko da goizean, eta mendebaldetik sartuko da arratsaldean. **Min.16° / Max.27°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Ignacio Aldecoa Saria jaso du Uxue Apaolazak, ipuin sorta idazteko

Bere proposamena aukeratu du epaimahaiak, euskerazko ataleko 27 partehartzaileen artean; abenduaren 31ra arte dauka epea, lana osatzeko.

**HERNANI LITERATURA**

Ipuin sorta bat idazteko lanean murgilduta izango da Uxue Apaolaza idazle hernaniarra, dagoeneko. Izan ere, Ignacio Aldecoa Saria jaso zuten abuztuaren, euskerazko atalean; eta abenduaren 31ra arte dauka epea orain, ipuin sorta osatzeko.

Arabako Foru Aldundiak antolatu du lehiaketa, eta 49garren edizioa izan da aurtengoa, nobedadeekin. Izan ere, bertan behera geratu zen pandemiaren eraginez, eta orain, dagoeneko bukatuta dauden lanak saritu beharrean, «gerorako sorkuntzari» eman diote saria. Horretarako, partehartzaileek aurkeztu

behar zuten, osatu nahi zuten ipuin bildumaren azalpen bat eta lagin bat. Euskerazko ataleko 27 partehartzaileen artean, Apaolazarena aukeratu dute lau epaimahaikideek: Txani Rodríguez, Katixa Agirrek, Iban Zalduak eta Alexander Gurrutxagak. Gaztelaniazko atalean, zortzi hautagaien artean, Jabo H. Pizarroso izan da saritua.

Bi irabazleek, 6.000 euroko saria jasoko dute, eta urte bukaera baino lehen entregatu beharko dituzte ipuin bildumak. **K**



Haur bat aulki gainean dantzan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldian.

## Pailazoekin batera saltoka eta dantzari, ikasturte berriari

**HERNANI PAILAZOAK**

Egoera berezian ere, ez zuten hutsik egin Hernanin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez. Eta emanaldi bat ez, bi eskaini zituzten aurreko larunbatean, arraroa izaten ari den ikasturte hasiera alaitzeko txikienei. Eta halaxe egin zuten, saltoka eta dantzari aritu baitziren haurrak, eta baita gurasoak ere, pailazoen kolore, musika, dantza eta kantu festak animatuta.

**JASOTA BEZALA**

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Izpi infragorrien termometroa

Kontuan hartuta biek dutela praktikotasun eta fidagarritasun bera tenperatura neurtzeko, honakoa da laser erakuslea duten eta ez duten izpi infragorrien termometroaren arteko ezberdintasuna: laserra dutenak garestiagoak direla, gida zehatz hori dutelako, tenperatura hartzen den tokia erakusten duena. Normalean kopetan izaten da hori, bekainen artetik gertu eta guruin pinealarekin alineatuta, eta burmuinaren erdian egonda, saihesten saiatu arren, beti eragiten dio laserrak glandula txiki-haundi horri.

Ez da merkuriozkoa bezapian edo ahoan (debekatuta dago) jartzea bezain fidagarria, eta ezta ipurdiko zuloako termometroa bezain fidagarria ere, bietan 0,3 gradu zentigradukoa

baita akats tartea, eta horretan eragiten du neurketarako aholkatutako distantziak, 5 eta 15 zentimetro artean. Erabilera klinikorako tenperatura tartea, bietan, 32 eta 43 gradu artekoa da, eta segundu batean badaukagu irakurketa; emaitza berbera izango da buruan neurtu edo gorputzean, berezitasun batekin: laser izpiaren erabilera, gaur arte, industriari eta laborategiko entsaio zein kalitate kontrolletara mugatzen zen.

Glandula pinealaren funtzio organikoa: oso hauskorra eta sentikorra izan arren, oso funtzio biologiko garrantzitsuak dauzka, organismoaren sistema endokrinon; besteak beste, melatonina sortzea, *gastaroaren hormona* deitutakoa. Antioxidatzaile naturala da, eta atzeratu egiten du

zahartzea. Gainera, bere gaitasun immunologiko haundiagatik, gure osasuna babesten du virus patogeno eta gaixotasun infektiosoen aurrean. Horrela, ziklo biologiko guztiak erregulatzen kontrol-zentroa da: loarena eta esnaldiarena, menstrualak, garapen sexualarena, eta kultura eta tradizio batzuen arabera, baita garapen espiritualarena ere; *espiritualtasunaren glandula, ari-maren eserlekua, hirugarren begia...* deitzen diote. Metatutako fluoruroak kaltzifikatu egiten badu, eraginez loaren gorabeherak, disfunkzio sexual goiztiarrak, migrainak, alzheimerra... Euskadin zergatik gehitzen zaio oraindik edateko urari, gainerako herrialdeek debekatzen badute?

Iulen Lizaso Aldalur

**IRAGARKI MERKEAK**

58 urteko emakumea eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko, bai beraien etxeetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. Deitu: 644 269 848 **Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

### † JOXEPA GOIKOETXEA ELIZALDE

Atzo hil zen, Hernanin, 82 urte zituela

- Goian bego -

Zure argia itzali da, baina zure ontasunak eta maitasunak dir-dir egingo dute gure bihotzean.

Betira arte, amatxo.



**ZURE FAMILIA**

Hileta **BIHAR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo da.

Hernanin, 2020ko irailaren 18an

### ☀ JOXEPA GOIKOETXEA ELIZALDE

Zure oroimenak indartzen gaitu.

**LATXEKO OTEGUI FAMILIA**



Ereñotzun, 2020ko irailaren 18an



### JOXEPI

Beti oroituko ditugu zurekin lanean pasatako egun onak.

**EPELEKO ETXEBERRIKO ZURE LANKIDEAK**



Hernanin, 2020ko irailaren 18an



### JULIA SAIZ BERROSPIDE

Atzo hil zen, Hernanin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Ahizpa: Purificación (Gurutzearen alaba); etxeko ilobak: Maria Rosa Peña eta Angel Uralde; ilobak: Mari Carmen Peña eta Ismael Solano (†), Kontxi Peña eta Juan Morcillo, Pepi Peña eta Esteban Holgado; gainerako ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 18an

OHARRA: Gorputz laguntza bere familia artean egingo da. Familiak eskerrak eman nahi dizkie egoitzako langileei, emandako maitasun eta zaintzengatik.



### JULIA SAIZ BERROSPIDE

"Zein polita izan den zurekin bitztea, are gehiago zu maitztea, ezinezkoa, berriz, zu ahaztea". Muxu potolo bat, izeba Juli

**MARIA ROSA ETA ANGEL, ADRIANA ETA ALBERTO, JUAN LUIS ETA IDURRE, AINGERU, HARITZ, XABAT, PETTAN ETA MADALENA**



Hernanin, 2020ko irailaren 18an



I. URTEURRENA

### Pako Descarga Bengoetxea

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.

**ZURE FAMILIA**



Hernanin, 2020ko irailaren 18an